



## 428. Mapa: carretera / route / road

GALDERA: 17030



bide
bideberri
bide(h)andi
bide(h)aundi
(h)erribide
kamiño
kamio
kamiyo
karretera
erre(ge)bide
bestelakoak

- Hegoaldeko oharretan mendiko bide asfaltatugabeak, baina ibilgailuak ibiltzeko adinakoak aipatzentz dira maiz.

- **Bestelakoak:** bidesabal (Busturia, Gizaburuaga), erregekamioa (Goizueta), napoleon(en)bide (Sohüta, Ezterenzubi), nazionala (Arboti-Zohota), palabide (Sara).

**Lemoa:** bide erantzuna 17010-an ere eman du eta berez hangoa da.

**Elantxobe:** *Bidebárrí: Antxiñe esan olakorik eta ortik dator ori. Geure dénporan asfaltue bota da. Len arrixe san.*

**Berriz:** karretera oraingo gazteek esaten dutela, beraiek *kamiñoa* esan izan dute.

**Etxebarria:** *kamiñu*, euskeraz, *bide barríxe* dela dio lekuoak; gaurregun, *kamiñu* asko esaten dela, baina beraiek beti *bide barríxe* esan izan dutela.

**Aramaio:** *O(ra)ñ emen errépidie; bañe kamiñue beti usau d(og)u guk.*

**Oiartzun:** *erríbiré* ez da erantzun fidagarria.

**Donibane Lohizune:** *Biderria... bide berria...*

**Sara:** *palabideáno* ez da erantzun fidagarria eta mugatuan *palabidea* eman du.

**Sohüta:** Perioda batez, *napoleonbide* deitzen zizien, *Napoleonen denboan egina*.